



Juan San Martín
Euskaltzaina

Jarrera kritikoa beti

Ugaldek betidanik berezkoa izan duen kritikotasunak arazo bat baino gehiago sorrarazi zizkion garai hartan. Berak aitortua da alderdian ez zirela berataz fio, kontzientzia kritiko horrek bultzatuta, jarrera ofizialen kontrako iritziak defenditzen baitzituen haietaz sinestuta zegoenean. **Inkonformista** zen eta alderdiarentzat arriskutsua beraz.

“Martin orduan ezagutu nuen pertsonalki, bera bataiatu zen Andoaingo San Martin parrokian, Rikardo Arregiren hiletetan hain zuzen”

Zintzo bezain kezkatu bere herriarekiko

Mundua orotarikoa denez, hein batean, norbere herritik mundu zabalera begira jartzen dena baino unibertsalagorik ez da. Martin Ugaldek aspaldi erakutsi zigun bere izatearen zintzotasuna eta, beste inor ukatu gabe, euskaldungoan sorterriaganako jarrerazko kezka. Hala behar guziok osatzen dugun Unibertsoan. Iragan ekainean (1997ko ekainaren 28an) bere sorterri duen Andoaingo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ohorezko aipamena jaso zuen eta horren arabera Udalak Anjel Lertxundik idatzirikoa *Martin Ugalde, glosak* liburuxka argitaratu. Orain ordea, Andoaingo Udalak berak seme kuttun izendatu du. Beretzat ohore da, baina izendatzen duen herriarentzat ere bai noski.

Nik orain ez dut hobetzerik A. Lertxundik agertu zuenaz gainera, horregatik zenbait oroitzen mugatuko naiz.

Martin, mutiko zelarik hartu zuen 1936ko gerrateak, eta adin hortako beste asko bezala, zenbait urtez familiaz zatiturik noraezean ibili beharra izan zuen.

Lehenik Donibane-Garaziko egotaldian Euskal Herriaren beste aurpegi bat ezagutzeko aukera izan zuen, sasimuga horren bestaldeko anaiena hain zuzen. Gero, bere herrira itzultzean, ez zuen aurkitu gurasorik, ez eta gogozko girorik. Frankismoaren denbora ilunak ziren. Geroago joan zen erbesteraturik zituen gurasoekin Venezuelan elkartzera.

Ibilerok ondo aprobetxatzen jakin zuen, lana eta ikasketak eten gabe jarraituz.

Behin baino gehiagotan esan eta batez ere idatzi du Martinek “ajola gutxi kontsignak” esaldi labur bezain sakona. Ez baita alderdi edo pentsamolde baten uztarripean babestu eta isilik geratu. Aita bezala, bera ere leial izan baita, baina alderdi politikoari beharrezko ideiei: herriari eta hizkuntzari. Gorka Aulestiak esana da **Martin Ugalde bokazioz izan dela literatur idazle eta kazetari eta “abertzaletasunak beharturik politikari”**.



Martin Ugalderen *El Problema vasco y su profunda raíz político-cultural* saiakeraren aurkezpen ekitaldia.



Chillida, Arzalluz eta Zabalarekin batera Bilboko manifestazio batean.

Hori bera argi izan du betidanik Martinek: bere bidea ez zen politika. Horregaitik, alderdian belaunaldi berriak sartzen hasi zirenean erretiratzea erabaki zuen, bere berezko bidera joatea. Jaso zituen harrez gero senadore eta diputatu postuak betetzeko eskaintzak baina ez zuten konbentzitu.

Zatiketaren mina

70eko hamarkadan politikatik erretiratzea erabaki zuen eta 80ekoan etsi. Izugarri gogorra egin zitzaion EAJren haustura, izugarri gogorra hainbeste urtetako militantzia utzi eta EAra biltzea. Zatiketak mindua utzi zion barrua eta mina sentitzen du oraindik ere ezinulertu horiek direla eta.

Baina bi alderdi horien arteko zatiketa horrek ezezik, euskaldun guztion arteko haserreak, gorrotoak eta ezinikusiak ematen dio barruan min: intolerantziak.

Chicago-ko Northwestern Unibertsitatean kazetaritzan graduatu arte. Caracas-era itzuli eta Creole Petroleum Corporation-en *El Farol* zeritzan kultura aldizkariaren zuzendaritzan aritu zen.

Horrez gainera, han bertan zenbait liburu argitaratu zituen 1956tik 1966ra bitartean. Horietako batzuk sarituak gainera. Hango giroari loturiko gaiekin ipui eta kontakizunak, humanista handien erara azalduz. *Imágenes de la Semana Santa en Venezuela* (1956), *Un real sueño sobre un andamio* (1957), *La semilla vieja* (1958), *Las manos grandes de la niebla* (1964) eta abar. Edo Meridako Universidad de los Andes-ek argitaratu zion *Cuando los peces mueren de sed* (1963).

Erdarazko liburuokoin goi mailetako literato ospea hartu zuen Martin Ugaldek, baina inoiz ez zen ahaztu bere herriaz eta bereziki bere hizkuntzaz, zeren aldi berean euskarazko idazkiak ere argitara eman bai zituen. Gainera, Ana Mari emaztearen laguntzaz, aberritik urrun, seme-alabei euskaraz irakatsi zien.

Gure hizkuntzaz kezkatuak *Unamuno y el vascuence* (1966) saiakera argitaratu zuen. Baina, esan bezala, ordurako euskal literaturaren alorrean bideak urratuak zituen. Adibidez, hor ditugu lekuko, besteak beste, *Iltzailak* (1961) ipuia, gure herri eta hizkuntzarekiko gertakariz *Ama gaxo dago* (1963) eta *Gurpegin aspaldi gertatua* (1965) deritzan antzerkiak eta *Umeentzako kontuak* (1966).

Han era egokian bizitzeko aukera lortu zuen maila hura bertan-behera utzita aberriminak ekarri zuen. Hirurogeiko hamarkada bukatzeaz zen, Hondarribia hautatu zuen bizilekutzat, baina beti izan du gogoan Andoain. Hainbeste liburu eta aldizkari igorri zizkidan Martin orduan ezagutu nuen pertsonalki, bera bataiatu zen Andoaingo San Martin parrokiari, Rikardo Arregiren hiletetan hain zuzen, eta handik laster bisitatu nindun Eibarren. Elkarrizketa lasai eta atsegina erabili genuen, bereziki euskara idatziaren batasunari buruz.

Hemen ere kementsu aritu zen idazten, baina oraingoa kasik dena euskaraz, batez ere *Zeruko Argia* astekari hartan. Garai haretako elkarrizketa eta beste zenbait idazlan bilduak ditu *Batasun eta zatiketen artean* (1989) deritzan liburuan, geroztik idatzi zituen zenbait lan itsatsiz.

J.L. Abellán-en zuzendaritzapean Taurus argitaletxeak 1978an argitara eman zuen *El exilio español de 1939* deritzan haren VI. aleak Cataluña, Euzkadi, Galicia zeraman izenburu orde eta bertan datorren *El exilio de la literatura vasca: problemas y consecuencias* (217-283. orrialdean) deritzan kapitulu bikaina berari zor diogu. Ohartzen zen euskarazko irakurlegoaren urritasunaz eta suspertzeko bultzagarri izango ziren erderazko lanak ere premiagarri iruditu zitzaizkion eta hara hor, 1974. urtean, non argitaratu zituen *Hablando con los vascos* Venezuelan erabaili zuen humanismodun estilo berean, eta bestetik, gure lehena ezagutarazteko, *Síntesis de la historia del País Vasco*. Horietarik lehena zein hirugarrena, biak laster berragiratutak izan ziren. Azken hori ordea, hiru aldiz urte berean eta 1977an berriz euskarazko itzulpenez. Baina guzi horren ordaintzat esker-gaitza ezagutu zuen. Hemen oraindik ez bai zen euskaltzaleentzat ere giro leunik eta beste gizon pakezale batzuk bezala, larritasunak leporatuz, Donibane-Lohizunera alde egin beharrean aurkitu zen. Zorionez, berriz itzuli zitzaigun, lehen bezain kementsu lanean jarraitzeko.

1980. urtean Euskaltzaindiak antolatu zituen Euskalarien Nazioarteko Jardunaldi haietan bere esku utzi zuen kazetaritzaren ardura, J.M. Iriondo eta M.P. Lasarte laguntzaile zituela. *Ordurako*, *Martin*, *erakunde* hortan urgazle izendatua zen.

Geroztiko lan batzuk saritu eta berragitaratuak izan ditu, hain aspaldi ez dela, 1993an Euskaltzaindiak *Pedrotxo* eleberriatik "Txomin Agirre Saria" eman zion bezala.


1993ko maiatzaren 28an, Euskaltzaindiak, ohorezko euskaltzain izendatu zuen. Ondo irabazia bere emaitza oparo bezain aberatsagatik.

Deia egunkariaren sortzaileetarikoa eta bere zuendariorde izana da. Jaurlaritzako Kultura Sailaren burorde ere izan zen eta euskararen suspertze lanean ondo gogoan izango dute euskal idazleek beraiei legez dagozkien eskubideak gordetzeko prestatu zuen plangintza, orain betetzen ez dena. Beti jokatu izan du gaztetxotatik zintzo aukeratu zuen bide garbia, zuzentasunak eraginik eta ez bestek.

Gero *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorkuntza bultzatu eta egunkari horren kontseiluko buru jarraitzen du. Orain jaioterriak seme kuttun izendatzeaz egiten dion gorazarrea ongi merezia benetan.

Ezin ulertu dezake nolatan ez garen guztiok batzeko gai helburu berberen alde, euskararen alde esate baterako.

Tolerantziaren bidetik, batzuen eta besteen arteko zubi lana egitea egokitu zaio Martini askotan. Ahalegin horretan erre ditu gogoak. Eta nekatuta dago, ongi baitaki zubirik gabe ezingo dela herririk eraiki.



Eako Joseba Azkarraga, Pelay Orozco eta Nestor Basterretxearekin batera.